

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



## *Artea eta espazioa*

- Egunak: 2017ko abenduak 5–2018ko apirilak 15
  - Komisarioa: Manuel Cirauqui
- 
- Erakusketa honen abiapuntu kontzeptuala Eduardo Chillida artistaren eta Martin Heidegger filosofoaren arteko lankidetzak da; ondorioz, *Artea eta espazioa (Die Kunst und der Raum)* izenburuko artista-liburua argitaratu zen 1969. urtean.
  - Nazioarteko artistek egindako 100 lanetik gora ditu ikusgai erakusketak, eta azken sei hamarkadetako abstrakzioaren historiaren gaineko berrirakurketa eskaintzen du.
  - Halaber, *Arteak eta espazioak* Frank Gehry-ren eraikinaren gaitasun nekaezina omentzen du, espazio ikusgarrien eta garai moderno eta garaikideetan funtsezkoak diren sorkuntza-lanen artean elkarrizketa bakarrak sorrarazten baititu.
  - Artearen bidez lekua eta arkitektura ospatzeko gunea da erakusketa: espazioen eta bolumenen nahiz sormen plastikoaren eta pentsamendu filosofikoaren artean sortzen den elkarrizketa aztertzeko aukera ematen du.
  - Ernesto Netoren *Burbuila zuria (White Bubble, 2013/2017)* lana, artistak berriki Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumari dohaintzan emandakoa, lehen aldiz egongo da publikoarentzako ikusgai erakusketa honetan.

Guggenheim Bilbao Museoak *Artea eta espazioa* erakusketa aurkezten du; hau da, Eduardo Chillida artista euskaldunak eta Martin Heidegger filosofo alemaniarrek 1969. urtean gauzatutako lankidetzak abiapuntu duen erakusketa. Artista-liburu bat izan zen topaketa horren emaitza, eta bertatik hartu du erakusketak izenburua. Heideggerren eta Chillidaren arteko elkarrizketan agertu ziren kontzeptuak gaurkotu eta garatze aldera —lekua, gauzen presentzia, artearen eta zientziaren arteko harremana—, erakusketan nazioarteko artisten ehun lanetik gora eskaintzen dira, eta azken sei hamarkadetako abstrakzioaren historia berriz irakurtzeko bezala eskaintzen da.

Guggenheim Bilbao Museoaren XX. Urteurreneko programaren barnean, *Artea eta espazioa* proiektuak, halaber, Frank Gehry-ren eraikinaren gaitasun nekaezina omentzen du, espazio ikusgarrien eta garai moderno eta garaikideetan funtsezkoak diren sorkuntza-lanen artean elkarrizketa bakarrak sorrarazten baititu. Museoaren Bildumako lan nagusiei Guggenheim museoaren sareko zenbait obra gehitu zaizkie, nazioarteko bilduma garrantzitsuetako beste pieza batzuekin batera, eta, era horretan, erakusketa lekuaren eta arkitekturaren ospakizuna izango da artearen bitartez.

Heideggerrek *Artea eta espazioa* liburuan diogenari jarraiki, artelana "espazioaz nola jabetzen den" eta espazioak "artelana nola zeharkatzen duen" ikus daiteke era ezberdinetan. Premisa horiek abiapuntutzat hartuta, erakusketak espazioen eta bolumenen arteko elkarrizketa aztertzeko proposamena egiten du, artelanen eta horiek egituratzen dituzten indarren —grabitatea, argitasuna, oreka— arteko konexioak eta elkarrizketak arakatuaz, baina baita sormen plastikoaren eta pentsamendu filosofikoaren artekoak ere. Historikoki eta geografikoki konplexua da, eta mendebaldeko testuingurutik haratago doa; hainbat diziplina baliatzen ditu, praktika garaikideetan etengabe berragertzeko.

*Artea eta espazioa* erakusketarekin batera, irudiz jantzitako katalogoaren argitaratuko da; hori osatzeko, honako artista hauek laguntza eskaini dute, beren testuekin eta dokumentuekin: Peter Halley, Marcius Galan, Agnieszka Kurant, Asier Mendizabal, Bruce Nauman, Damián Ortega, Sergio Prego, Alyson Shotz, Lee Ufan eta Zarina; Sara Nadal-Melsió idazle eta filosofoak eta Manuel Cirauqui erakusketaren komisarioak ere egin dute euren ekarpena.

## ERAKUSKETAREN IBILBIDEA

### 205. aretoa. Espazioa ezagutzetik hura zalantzan jartzera

Nola bihurtu zen espazioa, definizioz hautemanezina den erakunde hori, arte abstraktuaren eta bereziki eskulturaren funtsezko gai? Eduardo Chillida nahiz Jorge Oteiza euskal modernotasunaren irudi nagusiak izan ziren, eta nazioarteko errekonozimendua lortu zuten Espazialismoa eta Zero bezalako beste mugimendu batzuek antzeko kontuak aztertzeko beren estrategiak proposatzen zituzten garaian. Espazioaren ikerketa artistikoa abangoardia historikoekin hasi bazen ere gerra arteko denboraldian, horrek itxura esplizitua hartu zuen 1950eko hamarkadako proposamen post-konstruktibistekin, eta "kokapen espezifikoko" praktiken garapenarekin heldu zen haren puntu gorenera hirurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera. Gizakia llargira heltzea —Lucio Fontana eta beste artista asko itsutu zituen gertakizuna—, 1968an *2001: A Space Odyssey* filma estreinatzea eta handik gutxira *Arte eta espazioa* liburua argitaratzea gertakizun esanguratsuak dira, eta garai hartako kulturaren une *espazial* bat adierazten dute, Italo Calvino-ren *Le cosmocomiche* (1965) edo Georges Pérec-en *Espèces d'espaces* (1974) testuek bezalaxe.

Chillidaren obra-sortarekin batera, Fontana, Oteiza eta Naum Gabo bezalako aitzindari handien obrak ere egongo dira aretoan, bai eta haien artelana ikerketaren ildotik bideratzen dutenenak ere; tartean, Agostino Bonalumi, Sue Fuller eta Norbert Kricke. Era berean, 1960ko hamarkadaren erdi eta bukaera aldera gertatu zen abstrakzio-hizkuntzaren berritzea ikusarazten diguten hainbat sorkuntza-lan ere eskainiko dizkigu aretoak; hain zuzen ere, azpimarratzekoa da Eva Hesse-ren obra, dozena bat "estudio-piezarekin" (*Studio Works*); edota gaur egun ere lanean jarraitzen duen Anna Maria Maiolino brasildarrarena. Horrez gain, arte kontzeptualaren aitzindari handiak eta "kokapen espezifikoko" esku-hartzea galeria honetan aurki daitezke Gordon Matta-Clark-en eta Lawrence Weiner-en obrek.

## 206. aretoa. Hutsaren anbiguotasuna

Espazioko lasterketaren normalkuntza globalizazioaren garapenarekin batera gertatu zen. 1970ko erdialdetik 1990eko hamarkadan hasitako aro digitalera bitarte, abstrakzioaren zilegitasuna zalantzan jartzen duten proposamen artistikoak bost kontinentetan ugaltu ziren. Zaila da jakiten forma baten inguruan hitz egiteak ote dakarren hura inguratzen duen eta existitzeko aukera ematen dion hutsaren inguruan mintzatzea; hemen hautatutako lanek ibilbide sigi-sagatsua proposatzen dute espazioaren ageriko anbiguotasunetik barrena.

Garai horretako zenbait artistek abstrakzioaren tradizio plastikoari ekin zioten berriro —edozein formulaziotan: konstruktibista, neokonkretua, minimalista—; halere, ez zuten onartu haien praktika korrante edo mugimendu zehatzei lotuz hura etiketatzerik. Waltercio Caldas, Mary Corse, Robert Gober edo Prudencio Irazabal-en obretan, materia plastikoak elkartzeak sortzen ditu ispilatzearen mugan; Vija Celmins-en lanak, aldiz, zeruaren edo ozeanoaren gainazalak miatzen ditu, perspektiba eta eskala ezabatu nahian. Azken horren eta General Idea arte kolektiboaren *Arbela* (*Blackboard*) lanaren arteko elkargune gorabeheratsuak munduaren abstrakzioa eta fikzio biografikoa jartzen ditu aurrez aurre, figurazioaren eta *readymade* objektuaren arteko muga azpimarratzen duen artean. Bestalde, maketaren eta zatiaren arteko tentsioa, aurkitutakoaren eta eraikitakoaren artekoa, Isa Genzken-en eta Zarina-ren hemengo obretan agertzen da. Susana Solano-ri dagokionez, muino hutsaren inguruko ideiak barruko eta kanpoko nozioak konektatzen ditu, bobeda eta sotoa eta alderantziz jarritako harana edo mendia, hurrenez hurren.

## Sala 207. Aldakuntzak

Azken hamarkadetan, espazioaren alderdiak airea eta gure etxebizitzak zeharkatzen dituzten datuak bezain ugari eta ukiezin bilakatu dira. Hiriak gorantz hazten diren heinean, transmisio eta sareek airea trinkotzen dute. Aldi berean hautemangarriak eta urrunekoak diren objektuen mundua urrun geratzen da, haren irudikapenen alde. Egungo arteak kitzikagarria bezain konplexua den egoera horren berri ematen du: gauzen eta gordetzen duten memoriaren arteko konexioak berrezarri nahian, nolabait esatearren, orainaren arkeologia egin edo horren metamorfosiak, konbinazioak eta leku posibleak miatzen ditu.

Areto honetan erakusten diren obretan, etengabeko gorabehera agertzen da maila materialean eta erabateko espekulazioa maila kontzeptualean. Ángela de la Cruz-en obran, mihisearen etengabeko mutazioak daude, eta ez datoz bat Jean-Luc Moulène-k material osoan egiten duen bereizi gabeko erabilerarekin, haren eskulturetan talka egiten baitute topologia, politika eta historia kulturalaren inguruko nozioek. Garrantzi topologiko berdinarekin baina ikuspegi zientifiko esplizituagoarekin, Alyson Shottz-en obrek grabitazio-ondulazioa edo korapilatze kuantikoa bezalako fenomenoak erakutsi nahi dituzte, Agnieszka Kurant-ek meteoritoen lebitazio harrigarria erabiltzen duen bitartean Marcel Duchamp-ek 1919an *Parisko airea* enblematikoa botilaratu zuenetik aireak duen balio artistikoaren eta gaur egungo higiezin-ekonomian hark duen balioaren bat-egitea iradokitzeo. Pierre Huyghe-k eta Asier Mendizabalek hemen aurkeztutako obretan, berriz, hutsa eta memoria bi eragiketa-motatan nahasten dira. Edonon instalatzen dela ere, Huygheren *El Denboraren zaindaria* (*Timekeeper*) lanak lanak espazio hori zulatzen du, aldaketa eszenografikoen historia erakustearren. Mendizabalek Oteizaren

*Agoramakia* (edo hutsarekin duen borroka) gaia erabiltzen du, eskultura-gorputzaren egoera ezberdinak aztertzeko: hemen etzanda ageri da, eta zutunik, forma osoan, Museoko 201. aretoan.

### **209. aretoa. Atomoen artean**

Espazio hutsaren inguruko kontzeptua mundu osoko antzinako filosofia askotan agertzen da. Mendebaldeko zientziaren garapenean eragin gehien izan duena seguruenik atomismoaren doktrina izan da, Greziako Leuzipo, Demokrito eta Epikuro filosofoek sustatua. Haiei esker, gauzak solido itxuraz baino ez direlako ideia sortu zen imajinario kolektiboan, partikula banaezin edo atomo ugariz osatuta baitaude, hutsak bereizten dituen atomoz. Lehen hiru aretoetako taldekatzeko kronologikoak hautsiaz, areto honetan hainbat belaunalditako artisten obrak aurkezten dira; hala nola, Nina Canell, María Elena González, Julie Mehretu, Rivane Neuenschwander eta Cao Guimarães, Damián Ortega edo James Rosenquist; gai bezala atomizazioa, materiaren espantsioa, zirrikituak edo gauza oso beheengoak izango dituzte.

### **202. aretoa. Bidaiak mugitu gabe**

Joan-etorriari buruzko ideia —eta, beraz, bidaiarena—, espazioaren inguruan dugun nozioan agertzen da, ez baitugu espazioa ulertzen mugimendurik gabe. Robert Smithson-ek begitazior sortu zuen “ispilu-bidaia” (mirror travel) terminoa 1969an, Mexikoko Yucatan estatuan zehar egindako bidaiaren sortutako konposizio iragankorrak zirela-eta. Halaber, bidaiari eta islari buruzko nozioak bat datoz areto honetan Olafur Eliasson-en aurrez aurreko bi piezatan. Horietako bat sabaitik zintzilikatuta dago, eta iparrorratz bezala balio du galeriako lparra-Hegoa ardatzean magnetikoki orientatzen baita; bestea beira trinkoz egindako 24 esferak osatzen dute, eta inguruneke irudia biderkatzen du, ilargi-zikloaren antzera pixkanaka konprimatzen den bitartean. Aretoaren beste aldean, Ernesto Netoren *Burbuila zuria* (*White Bubble*) obra dago, kanpoaldea ahantzarazten digun espazio zeharkagarria eta higikorra, amaren sabelera itzuliko bagina bezala. Azkenik, bi denbora-markatzaile daude aretoaren albo banatan: *Artea eta espazioa* argitaratutako urte berean Londresen David Lamelas artista kontzeptualak egindako *Estudio bat barruko eta kanpoko espazioaren arteko harremanen inguruan* (*A Study of the Relationships between Inner and Outer Space*) bideoa, eta altzairuz eta urez egindako eskultura bat, Nobuo Sekine-rena, 1969. urtean hasitakoa eta geroztik etengabeko aldaketak izan dituena.

### **203. aretoa. Leku agorrezinak**

Heidegger-ek *Artea eta espazioa* liburuan idatzi zuenez, “Ikasi egin beharko genuke onartzen gauzak berak direla lekuak eta ez direla leku bateko soilik”. Galeria honetan, ezinezko hiru leku daude. Cristina Iglesias-ek bere eskulturetan, abegi onaren eta babes intimoaren inguruko ideia eskaintzen dizkigu, kasu honetan alabastro-eskultura batekin, beharbada mineraletan beroena denarekin. Richard Long-en *Bilboko zirkulua* (*Bilbao Circle*) obra arbel-zatiek osatzen dute, eta erritual-gune bat dakarkigu gogora, cromlech bat edo komunitate ikusezin bat ordezkatzeko duen zirkulu bat akaso. Azkenik, Lee Ufan-entzat, mihisean trazu eran elkartzen dira adimenaren eta gorputzaren bibrazioak.

## 208. aretoa. Markotik murrura, espazio itxia

Chillidak "mugen zurrumurruez" hitz egiten zuen eskulturaren espazioan. Hormak eta mugak, izan ere, espazioaren funtsezko elementuak dira. Pentsa dezakegu gure planeta muga-sare erraldoi bat dela, gure gorputzak mintz-pilaketa bat, horietako asko zentrokideak. Azken aldian, artelana mugak desegiten saiatu da girotzaile izateko eta bere marko propioaren itxikerian berresten ere ahalegindu da. 1970eko hamarkadan, hainbat instalazio proposatu zituen Bruce Nauman-ek, gune anomalo eta deseroso baten bidez ikusleak bere gorputzaren gainean zeukan pertzepzioan errotik eragiten zutenak; *Argi berdeko korridorea* (*Green Light Corridor*) dugu horren adibide. Halako sententzioekin jolasteko, bideoak ere sortu zituen, aktoreei emandako argibideetatik abiatuta. Hamarkada berean, Robert Motherwell pintorea —Espresionismo Abstraktuaren irudi handienetakoa— kolore-eremu zabalak markatzen hasi zen lauki soilekin, eta horien bitartez koadroak munduaren leiho bezala zuen aspaldiko funtzioa adierazten zuen. Beranduago, Peter Halley-k gela bere *leitmotiv* bilakatu zuen modernitateak —artistikoak eta arkitektonikoak— geometriarekiko duen obsesio larria agerian uzteko. "Sare-formako" obsesio hori Sol LeWitt bezalako lehen artista kontzeptual askok xehetasunez arakatu zuten, eta Txileko Iván Navarro artista gazteak berriro hartuko du bere neongo tunel askotan, koadro abstraktuak bezain ulergaitzak direnetan. Matt Mullican-en obrarik enblematikoenen artean zutoihal abstraktuak daude, eta horiekin ikonoak proposatzen ditu agentzia eta korporazio nagusiek kontrolaturiko gizartearentzat.

## 201. eta 204. aretoak, Atrioa eta kanpoko espazioak

Erakusketa dela medio, Guggenheim Bilbao Museoaren beraren Bildumako hainbat lan jarriko dira ikusgai espazio ezberdinetan nahiz bigarren solairuko aretoetan. Atrioan ez ezik, Museoaren kanpoko terraza batean ere Eduardo Chillidaren bi eskultura handi ikus ahal izango dira: *Aholkua espazioari V* (*Consejo al espacio*, 1993) eta *Besarkada XI* (1996). Halaber, atrioan eta bigarren solairuko hainbat puntu interstizialetan, Sergio Pregoren *Diedro-sekuentzia* (*Secuencia de diedros*, 2007) lanaren osagai ezberdinak ikus ahal izango dira; hots, artistak Guggenheim Bilbao Museorako espezifikoki sortutako gailu robotikoarenak. Asier Mendizabal euskal artistaren *Agoramakia (estatuaren kasu zehatza)* [*Agoramaquia (el caso exacto de la estatua)*] bertsio osoan ageri da 201. aretoan. Obrarekin batera agertzen den testuan, Jorge Oteizaren azken eskulturaren produkzioan izandako gorabeheren eta zoritxarren berri ematen du artistak. Bestalde, Brasilgo Marcius Galan artistak zuzenean esku hartzen du 204. aretoko hormetan, eta tindu eta argi-joko batzuek erabili ditu arkitektura era diagonalean zatitzen duen beiraren ilusioa sortzeko.

## DIDAKTIKA

BBK-k babestutako Didaktika proiektuaren bitartez, Museoak gune didaktikoak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu, erakusketa bakoitza osatzeko eta erakutsitako obrak errazago ulertu eta gozatzeko erremintak eta baliabideak emateko.

*Galderak, erantzunarekin edo gabe* izeneko gune didaktikoan, espazioaren kontzeptua eremu ezberdinetatik (zientifikotik artistikora) aztertzean sortzen diren galderak topatuko ditu bisitariak. Galdera horietako batzuen

erantzunak euskarri ezberdinetan ageri dira; hala nola, gizakia ilargira iritsi zeneko irudiak, espazioko lasterketarekin zerikusia duten bideo musikalak, erakusketako artistek espazioaren kontzeptuaren inguruan egiten dituzten aipamenak, erlatibitatearen teoriara hurbilduko gaituzten bideoak edo mundu paraleloak proposatzen dituzten komikiak. Esperientzia horiek guztiek erakusketa honen jasotako artearen inguruko hausnarketa egitera eta hari beste era batzuetara begiratzera eramango gaituzte.

#### Jarduera nabarmenak:

##### **Topaketa artistekin** (abenduak 2)

Erakusketan dauden artistekin topaketa: Marcius Galan, Agnieszka Kurant, Asier Mendizabal, Iván Navarro, Damián Ortega, Sergio Prego edo Alyson Shotz; Manuel Cirauqui erakusketaren komisarioa arituko da moderatzaile lanetan.

##### **Partekatutako hausnarketak\***

Museoko profesionalak gidatutako bisitaldi hauetan, publikoak erakusketaren muntaiaren inguruko xehetasunak eta bestelako bitxikeria interesgarriak ezagutu ahal izango ditu.

- **Arte arduradunen ikuspegia** (abenduak 13): Manuel Cirauqui, erakusketaren komisarioa.
- **Funtsezko kontzeptuak** (abenduak 20): Luz Maguregui, Hezkuntzako koordinatzailea.

\*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

##### **Emanaldiak: *Zinema espazialeko arratsaldeak***

###### ***2001: A Space Odyssey*** (urtarrilak 27)

Zientzia-fikziozko kultu-film hori Stanley Kubrick-ek zuzendu zuen 1968. Urtean, eta mugarri izan zen, efektu berezi, errealismo zientifiko eta proiektzio abangoardistengatik. Ilargian aurkitutako estralurtarren objektu baten irrati-seinaleak jarraitzen ahalegintzen den astronauta-taldearen historia kontatzen du. Jatorrizko bertsioa gaztelerazko azpituluekin.

###### ***Space Is the Place*** (urtarrilak 28)

1972. urtean Sun Ra-k idatzi zuen zientzia-fikziozko pelikula hau, eta bera izan zen protagonista. Bertan, jazz-konpositore eta musikari afroamerikarrak kanpoko espazioko planeta berri batean izandako abenturak kontatzen ditu. Film barregarria eta bitxia da, 1970ko hamarkadako estetikarekin, John Coney-k zuzendua. Jatorrizko bertsioa gaztelerazko azpituluekin.

#### **Azaleko irudia:**

Eduardo Chillida

*Aholkua espazioari V (Consejo al espacio V)*, 1993

Altzairua

305 x 143 x 207 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

**Argibideetarako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)  
(prentsa-eremua).




Prentsa irudiak:  
***Artea eta espazioa***  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabili ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

Eduardo Chillida  
*Aholkua espazioari V (Consejo al espacio V)*, 1993  
Altzairua  
305 x 143 x 207 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa



Bruce Nauman  
*Argi berdeko korridorea (Green Light Corridor)*, 1970  
Ohol eta argi fluoreszente berdea  
3 m x 12,2 m x 30,5 cm  
Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Panza Collection,  
Dohaintza, 1992. 92.4171



Cristina Iglesias  
*Titulurik gabea (Alabastro gela) [Sin título (Habitación de alabastro)]*, 1993  
Burdina eta alabastroa  
3 parte. Guztizko neurriak aldakorrak  
Guggenheim Bilbao Museoa



Damián Ortega  
*Gauza kosmikoa (Cosmic Thing)*, 2002  
1989ko Volkswagen Beetle-a, kableak, korapilatutako barrak eta metakrilatoa  
Neurri aldakorrak  
Honen eskaintza: artista eta kurimanzutto, Mexiko Hiria. Col. MOCA, Los Angeles, hauek emandako funtsekin eskuratua: Eugenio López eta the Jumex Fund for Contemporary Latin



Marcus Galan  
*Ebakidura diagonal* (*Seção diagonal*), 2008  
Zura, zoru-argizaria, argi-iragazkiak eta pintura pareta gainean  
Neurri aldakorak  
Inhotim Collection, Brasil



Eduardo Chillida / Martin Heidegger  
*Artea eta espazioa* (*Die Kunst und der Raum*), 1969  
Artista-liburua  
215 x 155 mm  
Familia Chillida Belzunce



Eduardo Chillida  
*Harri-inkrustazioa Beruna* (*Piedra Incrustación Plomo*), 1957  
Harria berunezko inkrustazioarekin  
25.5 x 37,8 x 4,5 cm  
Familia Chillida Belzunce



Jorge Oteiza  
*Esferaren desokupazioaren entsegua* (*Ensayo de desocupación de la esfera*), 1958  
Altzairu forjatua  
50 x 49 x 39 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa



Robert Gober  
*Hustubidea* (*Drain*), 1989  
Peltrea eta beruna  
7,2 x 10,9 x 10,9 cm  
Collection S.M.A.K., Stedelijk Museum voor Actuele Kunst, Gante



Isa Genzken  
*Begirada* (*Blick*), 1987  
Metalezko egitura, zementuzko 13 pieza, horietako bat ispilu batekin  
225 x 120 x 70 cm  
Collection FRAC Grand Large-Hauts-de-France, Dunkerque



Olafur Eliasson

*Nabigatzaile alproja (Rogue Navigator)*, 2017

Itsasoak ekarritako zura, pintura (berdea, gorria), imana eta  
altzairu herdoilgaitza

30,5 x 156,2 x 17,8 cm

Bilduma pribatua, New York



Peter Halley

*Isolamendua berretsia (PHP 89-07) [Isolation Confirmed (PHP  
89-07)]*, 1989

*Day-Glo* akrilikoa eta *Roll-a-Text* mihise gainean

229 x 255 cm

Fundación Aldo Rubino, Museo de Arte Contemporáneo de  
Buenos Aires



Pierre Huyghe

*Denboraren zaindaria (Timekeeper)*, 2002

Tokian tokiko paretan egindako instalazioa

Neurri aldakorrak

Adrastus Collection



Robert Motherwell

*Feniziako estudio gorria (Phoenician Red Studio)*, 1977

Akrilikoa eta ikatz-ziria mihise gainean

218,4 x 487,6 cm.

Guggenheim Bilbao Museoa



James Rosenquist

*Flamenko kapsula (Flamingo Capsule)*, 1970

Olio-pintura mihise gainean eta aluminioz inpregnatutako Mylar-a

290 x 701 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

